

IRAGARKIAK

Beste iragarki ofizial batzuk

INDUSTRIA, TRANTSIZIO ENERGETIKO ETA JASANGARRITASUNAREN SAILA

532

IRAGARKIA, 2026ko urtarrilaren 28koa, Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasun Arabako lurralde-ordezkariera, zeinaren bidez argitara ematen den, lehia posible baten ondorioetarako, aldez aurreko administrazio-baimenaren eskaera, «Zaballa» parke eolikoa ezartzeko Arabako Vitoria-Gasteiz, Iruña Oka eta Kuartango udal-mugartetan.

Maiatzaren 28ko 115/2002 Dekretuak 4. artikuluan ezarritako ondorioetarako (115/2002 Dekretua, maiatzaren 28koa, Euskal Autonomia Erkidegoan parke eolikoetako energia eolikitik energia elektrikoa ekoizten duten instalazioei baimena emateko prozedura arautzen duena), iragartzen da zer eskaera aurkeztu den «Zaballa» parke eolikorako aldez aurreko administrazio-baimena lortzeko:

- Eskatzailea: Alerion Spain, SL (IFK: B67364885).
- Tartean dauden udal-mugarteak: Vitoria-Gasteiz, Iruña Oka eta Kuartango (Araba).
- Haize-sorgailuen kopurua: 1.
- Instalatu den potentzia gordina: 4,95 MW.
- Ukitutako azaleraren poligonalaren koordenatu geografikoak:

Poligonalaren UTM Koordenatuak (ETRS89 HUSO 30)		
Erpina	UTM x	UTM y
1	513935	4745393
2	515351	4746579
3	515416	4745154
4	516401	4742221
5	511723	4741107
6	512148	4742461
7	513930	4742439

Hori guztia argitara ematen da, eta hogeiei eguneko epea ematen da, iragarki hau 115/2002 Dekretuaren 4. artikuluan aipatzen diren aldizkarietan argitaratzen den egunetik aurrera zenbatzen hasita, parke eoliko hori ezarri eta ustiatzeko interesa duten pertsona fisiko edo juridikoek aukera izan dezaten lehia-eskabidea aurkezteko aipatutako dekretuaren 3. artikuluan xedatutakoaren arabera Industria, Arabako Lurralde Ordezkaritzan, izapidetze elektronikoaren plataformaren bidez, GE-Y prozeduraren bidez, hemen: <https://www.euskadi.eus/prozedura/ge/web01-a2energi/eu>

Vitoria-Gasteiz, 2026ko urtarrilaren 28a.

Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasun Arabako lurralde-ordezkaria,
JAVIER AIZPURU OCHOA DE ERIBE.